



BIGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
⊕ " Argizagi azken laordena.
● " Gorapen hastia *edo* argizagi berritze.
⊕ " Argizagi lehen laordena.
-

OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthaila* 11^{an}; — HAOSTE, *baranthaila* 28^{an};
— BAZKO, *aphirila* 15^{an}; — ERROGAZONIAK, *maiatze* 21^{an},
22^{an} eta 23^{an}; — SALBATORE, *maiatze* 24^{an}; — PHENTE-
KOSTE, *arramaiatze* 3^{an}; — BESTABERRI, *arramaiatze* 14^{an}; —
ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *negila* 2^{an}.

LAOR THENPORAK :

Martcho 7 ⁿ , 9 ⁿ eta 10 ⁿ .	}	Buruila 19 ⁿ , 21 ⁿ eta 22 ⁿ .
Arramaiatze 6 ⁿ , 8 ⁿ eta 9 ⁿ .		Abentu 19 ⁿ , 21 ⁿ eta 22 ⁿ .


EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Argizagi ulhunte osoa, pharte ikhousiren diena Uskal Herrian, *baranthaila* 9^{an}. Goizanko zazpi orenetan dateke argizagia haboroenik itzalturik. — Ekhi ulhunte phartezkoa, *baranthaila* 22^{an}. Ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Ekhi ulhunte phartezkoa, *uztaila* 20, 21^{an}. Ezta ikhousiren Uskal Herrian; beste ekhi ulhunte phartezkobat orano, *agorrila* 19^{an}, ezin ikhous dirokiena *goure* herrian. — Argizagi ulhunte osoa *agorrila* 3, 4^{an}, ikhousiren *eztuguna*.





IRAKOURZALIARI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarrekijosirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hila-beteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa dateke nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., houra ourthe oroz behar date begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arround. Laour gerren arraldia orai hirour ourthe hasirik izan da.



ERRAN ZAHAR



ESPARANTCHA esteiariaren othoranza.

Ezta deus edertarzuna,
Lagun ezpadu hountarzuna.

Eztago argizagia bethi bere betheunian.

Ezta ordu hounareki etcheratzen, bidian ari dena phouska bilzen.

Eztaki bakiaren balia, nourk ere eztakianak gerlaren berri.

Eztemala deus handirik aberatsari, ez aldiz arbuya ore ahala beharrunian denari.

Eztemala hire mousa begiratzera bethi so lurrera dagoenari.



Gaitz hartu eta egarian ikhasgarri.

Gaztiak ez jakinez, eta zaharrak ezinez, doatza egitekoak deseginez.

Gathiak altchaturazia jan. (*Hori erraiten da edozouñek bere houn guzia esteialtu dianian.*)

Gaichtoak houna khoza diro.

Gaichtoen artian ezin biziz bahabila, hoa beste mundu baten bilha.

Gaichtoen artian da gaichtoena bere gaizki kobratziaz kukatzen dena.

Goiz guziak du bere arratsaltia.

Goizerria denian gorriago eziaz holli, hire euritakoa eztemala ihouri.

Gordinak jaten dutianak, jan ditiroke lirinak.

Khorpitz eria arimaren sendozale.

Gosiak beno haboro galtzen dutu asiak.

Goure horak buztanaz daki balaku egiten, eta ahoaz ousoukitzen.

Guti erran eta hanitch egin ; hori da gizon zuhurra-
ren gogo bethegarria.

Gutietsak handikeria, chora dirokek bekhasteria.





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- ☽ *l. l.*, 2ⁿ, arrastiriko 3 orenetan.
 ☽ *a. o.*, 10ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 46^m
 ☽ *a. l.*, 17ⁿ, arratsoko 8^{or} eta 58^m.
 ● *a. b.*, 24ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 18^m

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- ☽ *l. l.*, 1ⁿ, gaiherdi eta 40^{min}.
 ☽ *a. o.*, 9ⁿ, goizanko 7^{or} eta 55^m.
 ☽ *a. l.*, 16ⁿ, goizanko 4^{or} eta 32^m.
 ● *a. b.*, 23ⁿ, goizanko 8^{or} eta 6^m.



- | | |
|----------------------|---------------------------------|
| 1 Astelehen. | ZIRKONZISION. |
| 2 Asteharte. | s. Makaire. |
| 3 Astizken. | s ^a Jenevieva. |
| 4 Ostegun. | s ^a Fausta. |
| 5 Ostirale. | s ^a Amelia. |
| 6 Neskanegun. | APHARIZIO. |
| 7 Igante. 1. | s ^a <i>Melania</i> . |
| 8 Astelehen. | s. Luzien. |
| 9 Asteharte. | s. Julien. |
| 10 Astizken. | s. Marzien. |
| 11 Ostegun. | s. Teodoso. |
| 12 Ostirale. | s ^a Taziena. |
| 13 Neskanegun. | J. K. Bathieia. |
| 14 Igante. 2. | s. <i>Hilera</i> . |
| 15 Astelehen. | s. Phaole, erm. |
| 16 Asteharte. | s. Marzel. |
| 17 Astizken. | s. Antoni. |
| 18 Ostegun. | J. Phetir. Err. Jartia |
| 19 Ostirale. | s. Kanut. |
| 20 Neskanegun. | s. Fabien eta Sebast. |
| 21 Igante. 3. | s ^a <i>Agnes</i> |
| 22 Astelehen. | s. Bizente. |
| 23 Asteharte. | <i>A. B. Ezkountz</i> |
| 24 Astizken. | s. Timote. |
| 25 Ostegun. | J. Phaoler kon. |
| 26 Ostirale. | s. Polikarpe. |
| 27 Neskanegun. | s. Johane Kris. |
| 28 Igante. 4. | s. <i>Amadeo</i> . |
| 29 Astelehen. | s. Franz. Sal. |
| 30 Asteharte. | s ^a Martina. |
| 31 Astizken. | s. Petiri Nol. |

- | | |
|---------------------|-----------------------------------|
| 1 Ostegun. | s. Iñazio. |
| 2 Ostirale. | KHANDERALLU |
| 3 Neskanegun. | s. Blasi. |
| 4 Igante. 5. | s ^a <i>Jana</i> , Val. |
| 5 Astelehen. | s ^a Agata. |
| 6 Asteharte. | s. Aman. |
| 7 Astizken. | s. Romual. |
| 8 Ostegun. | s. Johane Mat. |
| 9 Ostirale. | s ^a Apolina. |
| 10 Neskanegun. | s ^a Eskolaztika. |
| 11 Igante. | <i>Setuajesimo</i> |
| 12 Astelehen. | A. B. Lourdakoa. |
| 13 Asteharte. | s. Jilbert. |
| 14 Astizken. | s. Valenti. |
| 15 Ostegun. | s. Fausti. |
| 16 Ostirale. | s ^a Juliena |
| 17 Neskanegun. | s. Hiji. |
| 18 Igante. | <i>Setsajesimo</i> . |
| 19 Astelehen. | s. Konrad. |
| 20 Asteharte. | s. Eucher. |
| 21 Astizken. | s. Pepeñ. |
| 22 Ostegun. | J. Phetir. Ant. Jart. |
| 23 Ostirale. | s. Petiri Dam. |
| 24 Neskanegun. | J. MATHIAS, ap. |
| 25 Igante. | <i>Kinkagesimo</i> . |
| 26 Astelehen. | s ^a Batilda. |
| 27 Asteharte. | s. Zezaire. |
| 28 Astizken. | HAOSTE. |



MARCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☽ *l. l.*, 3ⁿ, goizanko 9^{or} eta 37^m.
- ☿ *a. o.*, 10ⁿ, arratseko 8^{or} eta 26^m.
- ♁ *a. l.*, 17ⁿ, eguerdi eta 6 minⁿ.
- *a. b.*, 25ⁿ, gaiherditan.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☽ *l. l.*, 2ⁿ, goizanko 4^{or} eta 11^m.
- ☿ *a. o.*, 9ⁿ, goizanko 6^{or} eta 21^m.
- ♁ *a. l.*, 15ⁿ, arratseko 8^{or} eta 46^m.
- *a. b.*, 23ⁿ, arrastirako 4^{or} eta 16^m.




- | | |
|---------------------------|------------------------------------|
| 1 Ostegun. | s. LEON, BAION |
| 2 Ostirale. | s. Zimplize. |
| 3 Neskanegun. | s ^a Kunegonda. |
| 4 Igante. | GOROZUM. 1 ^a . |
| 5 Astelehen. | s. Luperkule. |
| 6 Asteharte. | s ^a Koleta. |
| 7 Ast. <i>IV Th. B.</i> | s. Tomas, Ak. |
| 8 Ostegun. | s. Johane Jink. |
| 9 Ost. <i>IV Th. B.</i> | s ^a Frantzesa. |
| 10 Nesk. <i>IV Th. B.</i> | 40 Martirak. |
| 11 Igante. | <i>Gorozumako</i> , 2 ^a |
| 12 Astelehen. | s. Greg. hand. |
| 13 Asteharte. | s ^a Ufrasia. |
| 14 Astizken. | s ^a Matilda. |
| 15 Ostegun. | s. Zakaria. |
| 16 Ostirale. | s. Ziriaka. |
| 17 Neskanegun. | s. Patrik. |
| 18 Igante. | <i>Gorozumako</i> , 3 ^a |
| 19 Astelehen. | s. JUSEF. |
| 20 Asteharte. | s. Zirilo. |
| 21 Astizken. | s. Benedit. |
| 22 Ostegun. | s ^a Riktruda. |
| 23 Ostirale. | s ^a Pelajia. |
| 24 Neskanegun. | s. Agapit. |
| 25 Igante. | <i>Gorozumako</i> , 4 ^a |
| 26 Astelehen. | s. Braulio. |
| 27 Asteharte. | s. Johane Dam. |
| 28 Astizken. | s. Justeñ. |
| 29 Ostegun. | s. Pastor. |
| 30 Ostirale. | s. Amadeo. |
| 31 Neskanegun. | s. Benjamin. |

- | | |
|----------------------|--------------------------|
| 1 Igante. | PASIONIA. |
| 2 Astelehen. | s. Frantzes P. |
| 3 Asteharte. | s ^a Irena. |
| 4 Astizken. | s. Isidro, Aph. |
| 5 Ostegun. | s. Bizente Ferr. |
| 6 Ostirale. | s. Sisto. |
| 7 Neskanegun. | s. Herman. |
| 8 Igante. | ERRAMU. |
| 9 Astelehen. | s. Akazio. |
| 10 Asteharte. | s. Makari. |
| 11 Astizken. | s. Leon handia |
| 12 Ostegun. | <i>Osteg. Saintu.</i> |
| 13 Ostirale. | <i>Ostir. Saintu.</i> |
| 14 Neskanegun. | <i>Nesk. Saintu.</i> |
| 15 Igante. | BAZKO. |
| 16 Astelehen. | s ^a Grazi. |
| 17 Asteharte. | s. Anizet. |
| 18 Astizken. | s. Elutero. |
| 19 Ostegun. | s. Leon IX. |
| 20 Ostirale. | s. Teotimo. |
| 21 Neskanegun. | s. Anzelmo. |
| 22 Igante. 1. | s. Suter ata Kaio. |
| 23 Astelehen. | s. Jorji. |
| 24 Asteharte. | s. Zerazi. |
| 25 Astizken. | J. MARK, Eb. |
| 26 Ostegun. | s. Klet & Marz. |
| 27 Ostirale. | s. Zerazio. |
| 28 Neskanegun. | s. Phaole K. |
| 29 Igante. 2. | s. <i>Petiri. m.</i> |
| 30 Astelehen. | s ^a Katalina. |



BANKARROTARI BURUZ



GSKU hounetan denez Frantziako sosa, ageri da azken ourthetako khountietarik. Har dezagun igaran ourthekoa etsenplutako, chifriak *Journal officiel* delakoan harturik dira. Houna lehenik Frantziaren zorra, ezpeitaduka « Rente viagère » bezala Frantziak zor dian arranda.

— 1904^{ian} ourtharila 1^{an} zor zian : 29 miliart 421 miliou 435 mila 61 libera.

— 1903^{ian} : 29 miliart 309 miliou 9 mila 432 libera.

Emendioa ourthe batentako : 112 miliou 425 mila 432 libera. Eta emendio hori, batere gerlarik gabe, gaizak ardurako gisan doatzalarik. Gerla izan du bai gobernamentiak, fraiden, seroren, aphezen, aita saintiaren kontre. Bena, gerla hortan agitu zaio oihan bazter batetan ouhouñari agitzen zaiona ; besteren houna, bortchaz, ebatsiz, sakolan ezari du... eta horra noula aberatstu den. Baratu da aitzinetik beno gusago, ageri den bezala.

Ditzagun ikhous 1904 budjeteko despendioak : Heltu dira 3 miliart 639 milioutara ; aldiz ezaririk izan ziren 3 miliart 564 milioutara ; horrek ekharten du despendioetan emendio bezala 74 miliou libera.

— Lan ederrik egiten deikie gorri hoiek ; botzka egunetan gouri erraiten gobernio moulderik merkena dela oraikoa ; eta egundano, ez Erregen, ez Empéradoren, ez Errepublika chouriaren denboran, heltu ez hullantu etzen chifretara, despendioetan heltzen da. Eta heñ bat baratu lekhutan bethi gorago badao.

Daigun ourthian deputatien botzkek direlaketz, 1906^{eko} budjeta jadanik ministroek lege egilen eskie-

tan ezaririk da. Uduri luke, ounestatiak eta zuhurtziak behar leikela aholkatu despendioen tchipitzia, botzen aisago beren althe biltzeko. Ezta hortik ari. Aspaldiko ourthetan goure ministroak eztira ez ounest, ez zuhur. Halarik ere, eztira tonto, hori ez. Bena botz emailiak beitira bethi izan tontoak, bethi errejent, edo papo-gorri eli baten elhe gezurti eta ederren behazale, berheziki botzka egunetan, houna zer egin dien ministroek.

Daigun ourtheiko budjetian ezari dutie 67 miliou despendio aorthen beno haboro. Emendio hortarik pharte houn bat joanen de errejenten sakolalat, « augmentation de traitement » bezala. Sos horri eztie jaun hoiek thu eginen, eta, ekharririkago dirateke, ez irousiki oro, bena bai zounbait, beren ezagutzaren egitera botz emailiak aseraziz, trounpatuz, eta kabasturutik bezala eroanez botzaren emaitera gobernamentiaren aldekoer.

Houna chifriak, *Journal officiel* etik : Despendioak ezaririk dira 1906^{eko}, hirour miliart, zazpi ehun miliou, lau ehun eta hirouretan hoge eta zortzi mila, bederatzu ehun eta berrogei eta hamazortzi libera.

Ezar ditzagula chifru hoiën khantian Errepublika chouriaren denborakoak :

1876^{ian} despendioak heltzen ziren : Bi miliart bost ehun eta hoge eta zazpi milioutara, erran nahi beita, miliart bat eta berrehun bat miliou orai beno gutiago. Enperadore zenaren azken ourtheiko despendioak heltzen ziren : Miliart bat zazpi ehun eta berrogei milioutara ; — bi miliart orai beno gutiago. Azken erregiaren denboran, etziren heltzen : Miliart bat eta berehun milioutara beno gorachago.

Egia da, gorri hoik nausi sarthuz geroztik kargulant doiaz gaintikina, populkatu dela Errepublikan..., beste ihize hourak, bohame zikhinenaren burian bezala. Bankarrota eguruki othe behar dugia, botzka egunetan behar den bezala botzaren emaiteko ? Eluke

hanitch balio etchia oro erre ondoan su ehaitera joaitiak.

Legar emendio. — Hanitch gisatara goure deputatu eta zenaturrek legarrak emendatzen ahal dutie; eta apherila 22^{an} agertu legian, ekharri die emendio bat, ahal bezañ gordia, goure gobernazale gisako ousten eskietan, zounbait miliou gehiago ezarreraziko tiana ourthe oroz.

Ezta legarkariaren ganik ukheiten dugun izkiri-bietan agertuko deusere; bona saltzapen bat egin nahi dukegunian, edo khanbio bat, edo zathikatze bat, hountarzun eli-batetan gañen, zergak oraikoak beno handiago dirateke. Areta zerbait baziren orai artino ere!


Laborariak hañ errasetik bichkara baletza bere aharien ilhiak, noula gobernamentiak laboraria bera egiten beitu legarrekilan, zounbait laborari ezacholek idi pare zounbait haboro balukie.

Eta gorri horik ariko zaizku halere erraiten oraiko Errepublika dugula gobernamentietan den merkena. Gaizo zozoak... beste gisaz ez deitzekotz, haien khosutz bizi diren kargulant eli bati bethi beha dagotzan laborariak!


Frantziako kargulantak. — Houna gizoun kapable batek egin dutian khountukak Frantziako kargulant saldoaren gañen. Hasi da 1840^{etik}. Ordian baziren 188 mila enplegatu; orai badira 450 mila, doblia igaranik haboro. 1840^{ian} bazen 5 enplegatu 1,000 jenteren; egun badira 11. Behar deia gero estonatu ikhoustetz legarrak gerouago gorago jouaiten! Mundu orok dakiana da kargulanten 4 phartetarik bat gutiena, ezpada 3 etarik bat, sobera dela, arrount behar gabe dela.

Deputatu sarthu nahi diren orenen ahoan eta lumen phunttan da behar direla Frantziako despendioak arhintu; behar direla legarrak aphaltu; behar

dela laborariaren eta langiliaren bizitzia aisatu. Bena kargiala heltu bezain sarri, adio Pette! eztira, lehen beno haboro, orhitzen beren buriez baizik; eta oro kasik algar uduri dira.



FRANTZIAN ETA BELJIKAN



GOURE gobernazale framazouek legarrak eta Frantziaren zorrak emendatzen dutien denboran, Beljikan, katolikoak nausituz geroztik kontrarioa agitzen da, ourthe oroz legarrak tchipitzen dira eta budjeteko diharu sartzek gaintitzen dutie despendioak.

Laborarien eta langilentako hanitch houn da hanko legia eta konparantza batek bichtan ezariko deiku noun den bizitzia echiago eta merkiago, Frantzian ala Beljikan. Houna bi nazione horietako egun oroz zerbutchatzen dutugun gaiza zounbaiten prezioak :

Petrola boutilla khostatzen da : Parisen *hamar sos*. Beljikan *bi sos*.

Inkhatz hogei kintale khostatzen dira : Parisen *50 libera*. Beljikan *20 libera*.


Tabaka kilokal khostatzen da : Parisen *24 libera*. Beljikan *hirour libera*.

Su-phizteko edo alumetak khostatzen dira : Parisen *bi sos boeita* bat. Beljikan *bi sos hamar boeita*.


Hamar liberatara heltzen den khountu baten kintancha khostatzen da Frantzian bi soseko bat, eta legar suerte hortarik, miliou zounbait sartzen dira gobernamentuko kesan; Beljikan aldiz, eztakie zer den ere kintantchako timbria. Kafé kharioena phakatzen da Frantzian sei libera kiloa; Beljikan aldiz hirour libera baizik ez.*

Egia da Beljikako botz emailiak, Frantziakoak beno zuhurrago direla. Han eztie izentatzen deputatu edo zenatur bezala, framazouik ez eta framazouen adiskiderik edo eskumakhilarik. Badu hogeï ourthe, hola-koen legez eta egitatez greüturik kanpoa orozbat eman zeïela.

Nouiz guk ere hala eginen dugu Frantzian? Ourthe berri hounek parada emanen deïku; badakikegia othe behar denaren egiten, deputatien botzketan?



USKARA BAZTERRETAN



ALDI bakhotch erran bageneza zer han heben, mundu orotan, gizon jakintsienek goure mintzoaren althe egiten dien, debeïagarriki luzeginate. Goatzan arren egun gune bakhotch batetara, hurruntto hatik, eta galtha dezagula eia han behinere uskara aiphaturik izan denez : goatzan, nahi baduzie, Angleterrako hiri nausiala, *Londres*-era. Ez ukhen beldurrik, ezi han izan berri da hitz horien izkiribazalia; ezkirade ez herratuko hiri handi hortan.

Londres-den hiria ezta hullanik ere Parise bezain eder, nahi bada aspaldi hountan ari diren haren edertzen. Hanko kharrikak, denbora zaharretan bezala, hersi dira eta okher, etchiak ulhun, eliza aitzi-nak khe eta khedarrez belzturik. Bena zer jente saldoua bide hersi horietan ! *Londres* da munduko hiririk handiena : lau miliou arima igararik, Parisen ezta etchit hirour miliou !

Diala zounbait ourthe, *Londresen* agitu da ezagutzen dudun Uskaldun bat. Garatik bazouan hirin barna, tram batetan, tink tinka jenten artian. Erran behar da Anglesa gizon ichila dela. Izanik ere doze-

nabat presouna bagou batetan, etzinirokeie elhe bat entzun, ez kheñu bat boroga.

Goure uskaldunak bere beithareki igaraiten zian eztela net elhestari Anglesa, Ziberotar emazte zounbaiti eleikela gaitz handirik egin Anglesen artian edireitiak denbora bouchi batez, mihiaren heñian etchekitzen ikhas liroiela. Gaiza horik eta beste zounbait gogouan igaraiten zutialarik, trama tampez ukhuratzen da, bi aphez gazte sartzen eta karraskez elhestan hasten : « Atch ! dio bere beithan uskaldunak, mihia luzetto jaun horiek, Angles izateko ! » Bi aphezak jarten dira goure herritarraren aitzinian, eta hari so bat egin ondouan, batak bestiari Guipuzkoako uskaraz : « Aitzineko hounek eztik uduri Anglesa dela ».


Eta Uskaldunak arrapostu : « Ez ene jintzortzia, ziek beno haboro ! » Phentsa goure herritarren boztarioua ! Erran gabe doua hirouren artian Anglesek orok beno herots haboro egin ziela.

Londresen bada, *British Museum* izeneko liburutegi aiphatu bat ezinago ederra. Han bildurik dira munduko mintzaje guzietan izkiribatu libru ez guti, eta uskarazko paper hanitch. Ezteite han sar gehienaren baimema gabe. Baimen hori ukhen nian uskalduna nintzala erran bezain sarri.

Librutegi hortan bospasei egunez lanian erauntsi dut eta aithortu behar dut hor ikhousi gaizek bihotza alageratu deitadela. Ikhousten dira goure kartieletan ezagaturik eta ezagaturik eztiren libru, guthun, kartilla eta kasetak oro. Librien izena paper batetan izkiriba eta, laster mithil batek ekhartzen zeitzun galthatiak, nahi bada ber salan edireiten ginen khountu lau ehun irakourzale eta izkiribazale. Ala phastoral, ala kobla, ala elizako libru, zer nahi uskaraz izkiribaturik han edireiten da, ountsa begiraturik Anglaterrako lanhouen pian.

Houna hanitch agradatu zaitan gaiza bat. Galthatu

nian, orai diala laster berrehun ourthe Aita Mendi-
buru jesuitak egin zian liburu ederra : *Jesusen biotz
maitearen devocioa*. Oren laorden baten burian, mi-
thilak erraiten deit Anglesez : « Jauna, galthegin
duzun guthuna sala berhez batetan begiraturik duzu,
gal dadin lotsaz : ezi hori bezalakouak oro galdurik
dututzu ; hau duzu mundian den bakhotch bakhoch-
tcha, eta gal baledi gal litezu uskarazko guthun
ederrenetarik bat. Eskuskatu nahi baduzu, jouan
behar duzu hantcheko sala hartara eta hanko enple-
gation aitzinian nahi duzuno erabilten ahal dukezu.
Hala egin nian. Bihotzak egiten zeitadan halako
killika bat, nihauren beithan erraiten nielarik :
« Jinko houna ! Gu, Uskaldunak, hain herabesti
goure uskararen begiratzeko, kanpoko horik aldiz
hain etheki goure mintzoari ! Gu gouriaren eretzian
hain ezachol eta horiek besterena hala ouhouratzen !
Zer ahalkia !



SEI CHANKHATAKO LEGE BAT

BURUTU die deputatiek, Elizaren Gobernamen-
tutik berhezteko legia.

Auherretan, M. *Berry* Pariseko deputatu
chouriak, erran deie : etzela komeni holako legebat
abia ledin ere, populiaren gogoaren berri jakin gabe.
Aoherretan M. *Gayraud* deputatu aphezak, khumitatu
dutu errelijioniaren aitzindariekin elhestatzera, lege
horren behar den bezala egiteko.

Holako proposizione chuchenak eztutie houn-
hartu, aspaldian okherrari eta gaistokeriari emanik
diren gizonek.

Arren, behar dugu ikhousi, Frantziaren eta bakia-

ren damutan, lege bat, errelijioniaren gañen, frama-zouek eta haien aldekoek eginik; Elizaren aitzindari lehenak, edo, haren izenian besterik nourbaitek, batere pharterik ukhen gabe.

Den gutiena katichiman ebili den haur batek, badaki, holako lege bati obeditzia, Aita Saintiak abonitzen ahal eztian gisan eginik delarik, schismatiko izatia datekiala.

Eta noula eguruki behar zen, Errelijioniaren gañen lege chuchenik, Barthou eta horren udu-riko deputatietarik? Batak gaichto, osoki errelijionia galerazi nahi dienak; bestiak gaichtoen laguntzale, eta errelijioniaren gañen jakitant... mando bat uruten edo mountra egiten trebe den bezala.

Nourk ouste du serioski, hoietarik hanitchek, bada-kiela ountsa zer den Eliza? Badakieia othe badenez ere Elizarik... harrizko hoiez besterik? Zounbat lege egile ezтира, ezpeitakie zer den Eliza, haboroziz huntzak zer den intchensia; edo astoak zer diren Errelikak? Ezgitian estona, arren, holakoek egin legia osoki tchainkhu balinbada.

Lege chuchenek ororek, badutie berañez, beren eginduran, behar dutien indarrak eta bermiak. Egin diena aldiz, eztagoke tchutik egon, chankharik gabe. Badutu sei chankha segurrik, eta zer chankhak! *Sei gezur!*

Houna sei chankha edo sei gezur hourak. Frantziako gizon jakitantenetarik eta saintienetarik batek, *Cardinal Perraud* Autuneko aphezakupiak ezagute-razten dereizku :

1° Dioie : Aita Saintia dela haslia, eta harek diala lege horren eginik izatiaren ogena.

Hori *lehen gezurra*; katolikoek intresen susten-gatzera kostumaturik ezten deputatu batek erran du, goraki eta leialki, Khanberan, hori gezur bat dela, istoriak errejistratuko diana.

2° Dioie : *Concordat*-aren haustiak eta Goberna-

mentiaren Elizatik berheziak segurtatuko diala, arround, erreligionari, libertate handiago bat.

Hori *bigerren gezurra*; lege horren egilek arrankura hartu die, artikulu elibaten ezartiaz, haien bidez, gu mehatchatuz, zaphatuz, gaztigatuz, itho ahal dezen goure libertatia. Berbera, goure kontzentziaren barniala heltzeko ahalaren faltaz, utziko deikie, han, nahi dugun sinhestiaren ukheiteko libertatia, kanpotiko errelijionezko señaliak oro debetazzen deizkielarik.

3º Dioie : Goberniak eziala aphezen phakatzeko obligazionerik eta haien idokitzeko zuzena badiala.

Hori *hirourgerren gezurra*; phakamentu hori ezta fabore bat, bena bai zor baten phakatzia. Frantziako deputatiek, 1789^{ian}, hartu zutien aphezen eta elizen hountarzunak bankarrotari ezkapatzeko, eta, 1791^{ian}, legian ezari zien artikulu hau : « Nazioniak egin zorren phakatzia eztateke, zer nahi pretesta izanik ere, arrafusatzen ahal : nazioniaren zorretan sartzen dira errelijione katolikoaren ministroen phakiak. »

Eta 1801^{ian}, Pio VII^{ak}, etzian hitzeman Elizaren hountarzunaz zuzenik gabe jabetu zirener haien gozamenian phausia, kondizionetan baisik : Frantziako gobernamentiak ourthe oroz phakatu ziala erreligionariaren ministroer, komeni zatekian arranda bat, zor haren intres bezala.

4º Dioie : hanitch Frantzes eztirelakoz katoliko, eztela justo haien legarretik phakaturik izan ditian aphez katolikoak.

Hori *laurgerren gezurra*; ezi, alde batetik, Frantzes bezala, justo da Frantzesek ororek phaka ditzen Frantziaren zorrak; beste aldetik, zounbatek eztutie, beren legarrez phakatzzen, eskola handi eli baten gastiak, eta treatate eli batenak, behinere ezpeitira zankhorik sartzen treatate haietan, behinere ezpeitira haien semiak sarthuko ere eskola haietan ?

5º Dioie : Gobernamentiak ezialakoz Jinkorik

ezagutzen, horrek berak galthatzen diala bara dadin aphezen phakatzetik.

Hori *bostgerren gezurra*; gobernamentiak, Frantziaren izenian, zor du Frantzes ororez arrankura ukheitia; arren ezdutu uzten ahal phakurik gabe, hañ arhinki, 50.000 aphez, zouñi beren estatiaz beraz debetaturik beitzai beste ofizio baten hartzia, biziaren irabazteko. Holako gaiza bat egin baleze juje, edo soldadoen aintzindari direner, nahi bada hoiek bortchan beste ofizio zerbait har ahal liroien, ountsa edirenik lizatekia?

6° Dioie: Aphezer phakamentia idoki ondoan legarrak tchipiturik izanen direla.

Hori *seigerren gezurra*; alde batetik, phakamentu hortara Frantzes bakhotcharen legarretik joaiten dena ezta ourthian hogeï eta hamar sos beno haboro heltzen jentekal; beste aldetik, legia igaran ondoan, katolikoek, dutien beste legar ororen lagun, badukie elizen egitiaren eta erreparatziaren karga, eta hala aphezen berek phakatziaarena.

Horra, irakourzale maitiak, zer den lege berria. Ikhousten ehi da zer eguner buruz goatzan, Frantzian, ezpadakie katolikoek, holako lege egile tzarreki dutien esteken hautsten dagun ourtheke *botzketan*.

Ezi, bethi behar du gaizak erran eta arraerran: Botza noula ere emanik beita, hala ere da, Frantziaren, errelijioniaren, libertatiaren, goure zuzen sakratien ountsa edo gaizki joaitia.

Erhauts begietara. — Debriaren beraren finaziarekin, egin die deputatiek, elizen gobernammentutik berhezteko legia.

Abilki gordatzen die beren jokia, ouhouñkeria handi baten iretserazteko populiari, elherik ederrenen pian.

Houna zer egin dien :

Aphezen phakamentiaz aiphu: Heben harat, 1° Hirouretan hogeï ourthiak betherik dutien aphezek,

egon direlarik 30 ourthe gobernamentiak phakutzen zutian kargietan ukhenen die, bizi direno, orai hounkitzen dien phakamentiaren laur phartetarik hirour, 2^o Berrogei eta bost ourthiak betherik, eta hirouretan hogei ourthetara helturik eztirenek, izan direlarik 20 ourthez gobernamentiaz phakaturik, ukhenen die, bizi direno, oraiko phakamentiaren erdia. 3^o Berrogei eta bost ourthez pekoek, laur ourthez ukhenen die zerbait: lehenian phaku osoa; 2^{ian} haren hirour phartetarik biga; 3^{ian} erdia; 4^{ian} hirour phartetarik bat; hantik aitzina... bi zehe sudur. Hatik, mila jentez peko diren herrietan, orano beste laur ourthez jarraikierazi gei deie zerbait.

Dagun ourthian bozkak beitira, eztu ihourk ere ezagutuko khanbiorik eta feitian eztateke; ondokoe-tan dateke ageri ouhouñkeriaren herecha. Bena sogizie beste abillezia houni. Ezdutu legiak aiphatzen ere, heben-harat apheztuko direnak ez eta ere hainbeste aphez zahar edo zouin nahi adineko errespetagarriak, hala noula kolejiotakoak zouñ zerratuko beiteitze beren eskola etchiak eta holaz bizibidiak oro khentuko.

Maoleko kolejioko jaun gehiena, eta horren udu-riko aphez eskola egiliak, horra zer gisaz erabiliko dutian lege berriak. Erretor ezarten balinbadutie eztukie batere phakurik. Hala hala dirateke, osoki phakurik gabe, heben hara apheztuko direnak oro. Areta zerbait khostarik dirateke haien eskolak, 25 ourthetarat heltu eztireno. Uduri luke hain chuchen lizatekiala haier zerbait phaku emaitia, hainbeste denboraren burian, noula errejent edo errejentsa tchori houn elibati, zouñ hamasei ourthetako-koz eskolak igaranik phakaturik beitira, haste has- tetik, 900 libera.


Elizzen jabegoaz aiphu: Arrount gobernamentiak oro beretzen dutu, eta gero, pherestatzen katolikoer kitorik. Bena, eta beha houni: estakuru ezdeus baten

gatik elizak zerraturik izanen ahal dirateke, eta khanbiaturik ostatu edo dantzategi edo zer nahi beste bohametegietara.

Arren, itchouren arabera, gaizak lehen bezala dirateke, *bozkak izan artino*. Begietara erhauts ourthoukiko die ahurretakaz gorriek, arte hortan, jente sinpliari; eta jente sinplia behatzen balinbada gorrier, ondotik dateke ountsa hatzamanik kontzentzian eta... mousan.



LABORANTCHAZ



I. — Uztak eta laborantcha 1905^{an}.

NOULA erabili du laborantcha urhentzen ari den ourthe hounek? Aitzinekoa etzen net houn izan salbu eta ardouentako. Ordian laborantchan gañeko lege eginen ondoramenak ezagun dira; erran dugun bezala, bada hounik, bada gaichtorik. Aorthen ere lege egin die uduri erazteko phuru senadore eta deputatiak zerbaitentako Parisera igorten dutugula. Kabalen sukre bazkageiaren thallak aphaltu dutie; egin die legebat ardouetan gañeko fraoden gastigatzeko, eta jadanik borogaturik da lege hora tchainkhu dela, eta bestebat beharko dela laster ezari. Konkoursetaz aiphu, zerbait khanbio egin die, beharga-betarik dioien az.

Erran daite azken ourthe hoietan laborariak ahala egin diela, zouñ bere aldetik, lurretik idoki mouzkinnen gora erazteko. Bena bada orano ubelunebat. Ountsa da lur bati eman eraztia usatiaz beno laurdena, herena, biguna eta haboro ere behar bada, usatiaz goiti. Salzepenak araoka chedaturik direia?

Ezta aski lurlanetik idokitia aosarki eskien artian baratu behar balinbazeizu soberakina. Hortan dira baliatu behar laborari khidegoak. Haien medioz koursen gora beherak heinbatetan chedatzen ahaldira. Ikous arren nour bere aldetik zer egiten ahal den gisa horrez agitzez.

Zersko izan da aorthenko ogi uzta? Azken setemer 26^{an} gobernamentiaren gasetak ezagut erazi dutu uzta gehienen berriak. Ogiuz aiphu zioan, bazela eraikirik ehun eta hemeretzu miliou ektolitraz aphurnibat goiti, phezian emaiten beitzien 92 miliou kintale. *Bulletin des Halles* den gasetak chifru hoietaren petik estimatzen du ogi uzta: 116 miliou ogi zaku, eta phezia, grado, aphilago orano. Joan den ourthian benohorobada, ountsaz ere; beha bihia, bata beste, ezta hullanik ere hañ ountsa hazi eta gune haboroetan chehe baratu da. Ezi ogi eremu handienak ereiten dutien bazterretan goiz danik haroaren gaitzak etzan erazi zutian ogiak, eta bekhan haietarik bilzen den bihia behar bezala hazten da, zouñ eretzetan ere ogia ezta zorhitzen eta chimal baratzen Azken bi ourthetan oundar guti baratu delakoz, eta atze herrietan ereuzta eskaz delakoz, ogiaren prezioa goratto egonen da utchura.

Olho gutiago erein zien 1904 urhentzian eta azken bedatsian. Eijerki emanen zien haroa ezpaliz hañ eurizu izan ebakiteko phuntian eta geroztik. Hanitch lekhotan nekez sarthu dutie eta erdi burnaturik Beste bihi mutek, garagar, sekale, artho, eman die usatiaz beno gutichago, bata beste.

Mahats bazen ere, ez azken ourthian bezanbat, hatsarrian. Bena eritarzuna lothu zaio zinez eretze frankotan, eta galerazi ountsatto; gero bildu die eretze hanitchetan euriarekin eta beldur izateko da ardoua eztela behar lukian bezañ houn izanen.

II. — Laborarien arteko asurantzak.

Azken ourthe hoietan zinez emendatu dira Frantziar laborarien arteko biltzarre edo zozietate suertiak, *syndicats*, *caisses rurales* edo *caisses de crédit agricole* deithiak eta berheziki laborarien beren arteko *asurantzak*.

Beljikako laborariek eman etsenpliak khozatu ditu Frantziakoak. Borogaturik zer abantalla handiak ekhartzen dutien asurantza hoiek Beljikan, han laborariak kasik oro, haboroak *herrikal*, beste zounbait *kantonadakal*, alkharren artian asuraturik beirtira, Frantziako laborariak ere hasi dira emeki emeki ernatzen eta 1896^{ian} etzelarik *hamar* gisa hortako asurantza *baizik*, 1897^{ian} heltu dira hamalau ehun eta lauetan hogeietara; 1902^{ian}, bi mila eta bederatzu ehunetara; 1904^{ian}, *lau milatara*.

Asurantza suertiak hobekienik hedatu direnak dira *kabalenak* eta *etchenak*. Bi hitz asurantza hoiengañen.

A. — Kabalen asurantzak.

Diala hamahirour ourthe eginik izan zen khountu batek ekhartzen zian 1892^{ian} bazela Frantziar, *bost miliart berrehun eta bi miliou sei chun eta berrogei eta hamasei mila liberaren* baliako kabalajia. Haietan *idi* eta *behikentia* bera sartzen zen hullan hirour miliartentako, *bohorkentia* aldiz miliart bat eta ehun eta hirouretan hogei miliouentako.

Khountia, hala hala, chuchenki idokirik izan da, ourthe oroz, edo eritarzunez edo uzurritez edo meskatzez *hogei eta hamar miliouen* kabalajia galtzen dela.

Laborari batek galtzen badu kabale bat eta ezpallinbada asuraturik, orozbat galdurik du haren balia, ehun, berrehun, lau ehun liberatara artino. Nourk erraiten ahal du etzaiola kabale hiltzerik agituko?

Aldiz, asuratu badu bere kabalia, houra hiltzen bazaio, ourthian bizpahirour edo lau libera emaitz kabale harentako, haren balia hullan eraikiko du eta bere damia eztuke ezin egarten ahal eztien haietarik.

Asurantzak bi gisatako dira edo *Compagnies* deithiak edo *Mutuelles*, erran nahi beita laborarien beren artekoak.

Eztugu erranen lehenak gaisto direla, hullanik ere, bera bigerrenak hanitchez hobere dira. *Mutuelles* hoieki sartzen eta khentzen ahal da, bost edo hamar ourtherentako *Compagnies* haietan ezarririk diren *mugak gabe*; sosa laborarien beren artian egoiten da kabale galtzerik ezpada; kabale hilen balia bertanago eta izkiribu handirik edo izkiriburik batere gabe eraikiten da; laborariak alkharren artian, batarzun, khiristi legiaz gomendatia, hobekiago praktikatzen die; arrankura haboro hartzen die beren kabalen behar den bezala geñhatziaz, hourak lanian leherrerazi gabe, hourak etchekiz borda edo barruku chahu eta sano elibatetan. Azkenekoz, laborarien arteko *Mutuelles* haiek segur die gobernamentutik ehun luseko bat gutienaren ukheitia, hastian eta ourthe gaistoetan. Ourthe oroz budjetian ezaririk da zounbait miliou chede hortara barreiatutik izateko Frantzia guzian.

Bi *Mutuelles* suerte badira:

1^o *Mutuelles* haien pharteliantek phakatzen die berek asuratu kabalen baliaren ehunaren hounanbeste bat, ourthe oroz, eta kesako masetik beharra balin-bada, phakatzen zaie kabale galdu diener, beren damiaren lau phartetarik hirour, 100 liberarentako 75 libera. Horra zer diren *Mutuelles à cotisation préalable* deithiak. Ikhousten ehi den bezala, holakoek laborari nounbre handi bat galthatzen die.

2^o *Mutuelles* beste gisako eli bat dira, haboroenik

hedatiak zouñtan phakamentiak egiten beitira ourthian berritan edo, behin, urhentzian, kabale hilen eta bakhotchak asuratu kabalen baliaren grado. Zozietateko laborari batek galtzen balinbadu kabale bat, beste lagunek emaiten die, berek asuratu kabalen baliaren arao, behar den soma haren damiaren lau phartetarik hirouren bardintzeko.

Hanbat hobe ezpalinbada kabale hiltzerik, eztu ihourk ere deusere emaiterik. Eta zorigaitz bat agitzen bada, ororen artian egarten die damia hanitch ehiki. Beljikan eta Frantzian azken mota hortako asurantzak dira ezaguturik hoberenak, eta, ahalaz, *alkharreki ber herrian* bizi diren eta kabaliak *ber erriskietan dutien* laborarien artian eginik dira.

Eskazegi direnian ahalak, hala noula uzurrite bat jiten deneko, houn da, herrietako *mutuelles* hourak alkharri junta ditian edo orano berak asura ditian departamentia oro hartzen dian asurantzako zozietari. Departamentukoari asuratzen dira, haren kesan ezariz, ourthe oroz, ehunaren hounanbestebat, kabalajiaren baliatik. *Pauen* bada, *Syndicat-eko* aitzindariez gidaturik departamentuko kabalen asurantzaren zozietatia. Hari juntatzen eta asuratzen ahal dira herrietakoak, emanez haren Kesari herrietako kabale asuratiaren baliaren ehunaren *lau sos* ourthian.

Chehetarzunen ukheiteko aski da izkiribatzia :
Syndicat des Agriculteurs des Basses-Pyrénées, rue Notre-Dame, 7, adrezari.

B. — *Etchen asurantzak.*

Egiten ahal dira kabalen asurantzen ber mouldian. Badira ere zounbait herri, bai Biarnon, bai Uskal-Herrian, zouñtan laborariak juntatzen beitira eta alkharren artian polizia bat igaraiten beiteie, zouñen arabera etche bat erre baledi zozietatian sarthurik den bati, bere lagunek emaiten beiteie edo ehuna libera edo haboro edo gutiago, agitu den damiaren grado

eta nourk berak asuratu dian etchiaren baliaren grado.

Houna abantalla ageri den bat. Herri batetan bada hogeita bost ourthe hountan hogeï laborari asuraturik. Phakatu behar zukien *Compagnies* direlakoer hamarna liberaz ourthe oroz, bost mila libera hogeita bost ourtheren burian.

Ezpeita, Jinkoari esker, agitu etche-erratzerik, sos hourak oro herritik kanpo joan ziratekienak, laborarien sakolan baratzen dira.

III. — Arthouaren jorratzia.

Balio dia arthouaren jorratziak? Irakourzale bati beno haborori erri egineraziren du galtho horrek. Aithor dugu, desaperent aide bat badiala.

Arthouak jorratzen dira orano haboroche lekhietan; orano diogu, zeren ezkirade osoki segur hori erran ahal ukhenen dugunez hebentik ourthe zounbaiten burian. Ez, azken ourthe horietan agertu lehen ezagutzen etzen eritarzun bat hedatzen bada. Bakantka dirate agian eritarzun horrez hounkiak-Jinkouak detsala. Eztakigu hatik zer ikhousi behar dugun.

Eztu ourthe hanitch arrountian eskutatzen zirela arthouak. Orai eskutazale zounbat nahi guti. Askitto enthelega ehi da: arraro langilia, gerouago eta arrarago. Ezteite izan ber demboran sohouan, biñat-zian eta alhorrian.

Bena zer erran arthouak jorratzen ez dutienez? Bada halako eta emendatzez badoutatza halakouak. Estonagarri da zouiñen ekharririk giren lanen bastatza; hanitchi gainkatzia aski zaiku.

Arthouak jorratzeko uzten dutien horiek igaraitia egiten die orano; eztakit nouiz artio. Emeki emeki igaraite hori soberatzera jinen zaieia? Heltu bada bai. Egin ehi den urhats bat zaie egiteko baratzen.

Zer dioie mouda berriko langile horiek? Houna zounbaiten arrazouak :

« Igaraitiak eta bekhantziak ere lanak dititzie ; luzetto ondo ororen bederazka bederazka haitzurra-
rekin afaitatzia ; luze eta khostous : chothil aldiz hountzapena. »

Entzun dugu hau ere erraiten :

« Eztat arthoua jorratzen eta etzitadazut batere dolutzen ; bardin eder duzu biltzeko phuntian. Orano eztit erraiten tcharrago balitz errekoilta ! Ountsa hountzen dit artho lekhia, bai eta harek eni emaiten ; arthouak azkarki dizu behar hountu. »

Elhe mehe, horik oro ; arrazou gachto. Ahalke ere izan behar lizate hola mintzatza, ichil egon berere.

Khosta dela jorratzia. Bai, duda gabe. Aisago da jorratzeko uztia. Bena izaten deia deusere, zerbait khoste gabe ? Deus hounik ja ez. Gochouago lizate bai behar dutugunak oro jin balezkigu besouak khurutche egoitez. Bena, haurzarouan errejentak erraiten zeikuna, auherretan ahoua zabalik egonen gira kalla erre zounbaiten haiduru ; zerbait gisaz bildu behar dutukegu jan nahi dutukegunak.

Lurrak ere emaitkoz erabiltzale nahi du : « Eman ezadak lehenik, erraiten deiku, eta gero nik emanen deiat ; emanen deiat hik eman deikedanaren araoera. »

Behar da jakin ukhen despendio zerbaiten egiten beharra denian, bigen emaiten lauen eraikiteko ; jokiak khandera beno haboroche balio du kasu hortan.

Arthouak zouin nahi ereitzak bezain ountsa phakatzan du egiten zaion lana, berheziki jorratzian egina, nahi diena erran dezèn igaran eta hala uzten dienek.

Houna gainkatzez zer hountzapen egiten dian lehen lan horrek. Ezkirade mintzo artho khurutche ereinaz. Erein bezala khurutche igaraiten denak eztu jorratzeko beharrunia hain handi noula luzaran berian

igaranak. Bena guti da khurutche ereile eta hartakoz khurutche igaraile.

Arthoua, beste lanthariak bezala, jatez eta edatez bizi da ; bestek bezala aide beharra badu. Egia deia ountsa goroztatu alhorretan jan ahala badiela artho zankhouek eta belhar gachtouek ? Eztu horrek egia aburupenik ere.

Igaraiten baizik ezten alhorrian, jorratian beno belhar gachto haboro badela, ezta dudarik ; artho igaraiteko tresnak herroka arteko belharrak erauzten dutu, bena ez net amourratzen phuntu artetakouak. Ageri da. Lur inkaru bat gaña ezarten deie ; orano itho balitza. Bertan agertuko dira senthorik, bizitzeko gougouareki.

Bena gorotzian badeia herrokan diren bizizalen ororentako aski janhari ? Noula izan ahal leite ! Gorotzak, dutian gozouak baratch emaiten dutu ; belhar gachtouak aldiz artho lantharia beno bizitore-ago, bichkorrago. Arthouak beretzen dutian gozouak oro houn zaitze. Horiek ebatsia bortchaz ere ments duke arthouak. Ber jatekotik harzaliak saldo handitan ago eta bakhotcharen phartia chothilago.

Egia hori ahatzecherik da. Ogiari arthouari bezain gutiena ogen eginen die belhar gachtouek. Ezta ogi alhorretan ikhouston lehenbezain beste ogi chahazale. Gochouago da jarririk, barnen, ezpartiña jostia eziz eta khakoturik ihitzareki edo ekhia bero delarik ogi chahatzen aritzia. Belharrek eta lurrak ezdutieia, bestiak beste, eskiak ere beltzen eta achalaloditzen ? Ogiak endes eta arhin ere bai hatik biltzeko phuntian. Bena hortan bara gitiala eta arra utzul hasi salliala.

Igaraiten baizik eztiren arthouak eztirade hain ountsa bekhantzen noula jorratiak ; zorhi haboro baratzen da : hambatez handiago alhazale saldoua. Horiek ere, belhar gachtouek bezala, artho buru ekharliak jan beharretik bereturen die. Bekhantze

horrek hatsarretik egin behar du, eguruki gabè. Idok ouhouiñak tchipi direno.

Burutu behar diren zankhouer ezdereia igaraiteko tresnak behin ere ogenik egiten? Herrokak eztirade oro lantza bezain chuchen, behiek edo mandouak artetarik urhats okher zounbait egiten die. Artho igaraitekouak bortchaz ere zain zounbait agerturen du; lehen ekhiak aldiz zain horier ezteie houn handirik eginen. Jorratzez ondo bilaiziak ountsa beztitzen dutugu, bertan sendotzeko gisan.

Arthouak, jan bezala, edan behar du. Gizon jakintsu zounbaiten arabera, lanthariak bere hazkurria biltzen badu hour bilhatu gabe, zañetan dian hour kharats bati esker, bethi halere hour beharra baduke; tchipi denian beno beharrago handitu ondouan, kokotsa galdu ondoan. Ezteite hori ukha ahal. Idorte luziak arthoua ere holli-erazten du; idorte batetarik landan jin euri houn batek arrabichkorratzen.

Artho igaraiteko tresnak lurra thortoilturen dia haitzurak bezain ountsa? Ez, ihoulaz ere; phuntu artetako lurra eztiroke zotuka. Lur harrotiak aldiz hobeki hartzen du bai euri hora, bai eta zohart ihitza, hartzen hurrupatzez bezala; haitzurraz hautserik izan ezten achalak hartzen beno haboro irachten aldiz. Behin barneat, hartia ere barnen luzazago etchekiten du haitzurraz erabili lurak.

Erran dugu belhar gachtouek ebasten diela arthouak behar gozouetarik ountsatto; hala hala hour hanitch hurrupatzen die; ere edari gutiago baraturen artho zankhouarentako. Hortarik ageri da zouiñen ogen dien ñabo eta beterrabak, jin bezala, handit artio, bekhantu eta saratugabe uzten dutienek.

Badu beste hoununerik ere jorratziak. Artho lekhiak ez dutugu hountzen artherrikako phuntiala artio. Negian, artherrikala artio egin gorotzak dutugu alhorrer emaiten; bortchaz ere gorotz horietarik phartebat egin berri da, eta hartakoz ezteate arrount

lanthare gaztiaz hartzeko heñian. Zer ezi gorotz egin berria, negian eginak ere baratch emaiten dutu berartan edukiten dutian gozo hounak. Azote izenekouak behar du izate gizaz khanbiatu zañez harturik izateko. Khanbiazliak estitake aldiz aiderik gabe lanian ari, aidia bezala beroua galthatzen die.


Lur thirana ala harrotia aidiak eta ekhiaren lein-huriek aisago traukatzen dieia? Dudarik gabe, lur harrotia. Jorratia ala igarana dira lachiago? Jorratia. Jorra aitzinetik igaraiten da eta behin igaran ondouan, lanthare gaztiaren ondoua harrotzen haitzurrareki. Jorratzen denian arthoua, eztirade berbera harrotzen zankhouaren berere. saihetsak, bena orano beste bi gaintiak. Holaz lanthare gaztiak hatsarre hatsarretik jateko haboro edirenen du, gero ere hobeki jouanen.

Ageri da arren osoki ogen diela arthouak jorratzeko uzten dutienek. Ez egitia aisago bai, bena aiseia horrek beste bat baduke. Artho buriak chothilago dirate. Aisago kharreia : gutziagarri ezten aiseia bat.

Jorra idorrareki, bena ez ahalaz ekhiak berotzenenik dian phuntian. Hobe da goizan goizik hastia eta goizanko phausu mentsaren bazkal ondouan hartzia. Lanthare gaztia lotzen bezala da eguerdi altian; hanitch ekhiaren minbera, erauzten bada phuntu hartan.



ISTORIA ETA ERASI



BANKIERBAT, abusaturik adichkidebateki, etcherat joaiten zelarik ulhun belzareki, ouste gabian erori zen uhaitziala. Han gainti igaraiten beitzen hacherobat, entzunik houraren tzapasta eta

bankieraren oihiak, oundotik jauzi zeron, bere sou-
ñekoak idoki gabe, hatzaman, eta luhidorriala ekharri.
Jaon harek ez jakin noula utzul eskerrak bere salba-
zaliari, hartzen deitzo eskiak eta potez jaten kasik, eta
eztu bere bidian eitz nahi joaitera ountsa saristatu
gabe.

Bere etchera jin erazirik erraiten dero nour den
eta zer gerthuz houriala erori; gero, gorarik bere
michkandietarik bati : « Eman ezozu berhala gaizo
gizontto houni hogeisosekobat. » — « O, Jaona, bestiak
arrapostu, hounegi zira; eztit hainbeste merechi,
segur; hachebat eroaiten dudanian hogeï sos dit
phakia. Bankierbat bizkarrian erabilten dudanian
deus eztuzu. »

Gizonttobat hilzera zouen. Eizten zeritzon bere
emaztiari zamaribat eta chakhurbat. Hil beno lehen
erran zeron : « Ene maitia, salduko duzu zamaria eta
haren saria emanen ene ahaide hullanener. Salduko
duzu ere chakhurra, eta hartarik ukhenen duzun sosa
zihaorrentako begiratuko. »

Zortzi egunen burian alharguntsak eramaiten dutu,
zaldia eta chakhurra merkhatiala. Bi kabaler ezarri
zeitzen belarrian etchekara izkiribu hau : « Chakhurra
500 libera, zamaria 5 libera. » Jentiak oro baratzen
ziren izkiribu haier soz, gogoan eroaiten zielarik
emazte houra buru mehetto zela araoz. Bena erostun
orori erraiten zian, ezpeitziren segur chakhurraz arran-
kuratzen : « Bai, zamaria bost liberarentako badukezu,
bena beharko duzu lehenik chakurra erosi; chakhurra
bost ehun libera, zamaria bost libera, har edo eitz. »

Agitu zen halere erostunbat, bi animalen harzale
eta emaztiak, gogo botzik, begiratu zutian bost ehun
liberak, eta zaldiaren saria senharraren askazier
phartitu.

..

Laborari uduri ttottolobat jarririk zegoen plazabat etan, tribunalaren ondo ondoan. Alkhatiak eta abokatiak bazabilzan hara hounaka sartzeko thenoriaren haiduru. Laboraria soz ari zen orderran (edo orloja) handi bati. Abokatu tchostakhoi zenbat hullantzen zaio eta erraiten : « Badakizia, adichkidia zer den sogiten derozun tresna hori ? » — « Zer arren, Jaona, lakhet bazaizu ? » (Jaon haiek orok paper zakiak besapian zutien.) Abokatiak erraiten deio : « Hori, gizonttoa aire eiherabat duzu ; mekanika berribat eta hanitch abilla. » Laboraria uduri estonaturik, oihuz ari : « Aire eihera, aire eihera ! Etzitazut handi ordian horrenbeste asto ikhoustia bere zakiekin. » Balinba abokatia etzen phekatu beste galtorik laborariari egitera.

..

Batallabaten ondoan izan zen Napoleon handia lekhiaren ikhoustera hilak ehortzi aitzinetik. Gaia zen. Argizagiak bere argi guzia eztiki hedatzen zian zounbait oren aitzinian pholbora khez estalirik zen lur haren gañiala, eta kanoen herotsorroen ondotik borogatzen zien doidoia, zuhaintzen adarrak aiziak igiturik, eta han hemenka soldado hiltzen ari ziren azken hatsak.

Napoleonek emaiten zian aitzina bere bidiari, nouiz eta batbatetan soldado hil baten kapotaren petik jalkhitzen beita chakurbat eta jauzi bezala egiten enperadoriaren gañera. Chakhurra utzulzen da bere naousiaren khantiala, begithartia eta eskiak milika, eta berriz utzulzen da jaoziz enperadoriari buruz, eta hola zounbait aldiz.

Enperadoria baratu zen eta beha zegoen ichil ichila. Ikhoustiz chakhurraren amodioa naousi hila-

rentako, nigarbat begitik eskapi zeron. Sekula, berak aithortu du, deusek ere, batallabaten ondotik, etzeron barnia duluratu noula chakhurraren hara hounakak; bere beithan zioan soldado hilak bazutiala adichkidiak tropan, eta segurrago bere konpañian, eta hortche zela orok eitzirik, salbu bere chakhurak.

Zer erakouspena emaiten dian chakhur horrek gizon haboroer!

Aberats zikhoizbat joan zen behin elizala. Egun hartan aiphatu pheredikazale arrotzbat mintzatu zen karitatiez. Elhestari ederra zen eta behazaliak jalkhi ziren bihotza hounkitucherik. Aberatsa etcherat utzulzen zen ere bere aldetik, oşoki beraortan sarthurik. Etzen dudarik utchurala kounbertiturik zela zikhoitza, eta mirakullu berribat elizak khountatu behar ziala.

Aozoetarik bat, ikhoustiareki begiak lurrilat unguraturik, eta oustekerian beste gisaz kobratzera aihar bilhatu zela, hullantzen zaio, eta erraiten : « A! ene adichkidia, zer pheredikia! hor zirenetarik eztuzu bakhoitzik araoz egonen dena karitate amiñibat egin gabe. » — « Bai hala duzu, zikhoitzak arrapostu; eta niagozu ene beithan, eia enizanez eske ebiliko. »





MAIATZA edo EPHAILA

Eg luzatzen dira oren eta laourdenez




- ☽ *l. l.*, 1ⁿ, arratseko, 7^{or} eta 16^m.
 ☽ *a. o.*, 8ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 19^m.
 ☽ *a. l.*, 15ⁿ, goizanko 7^{or} eta 12^m.
 ☽ *a. b.*, 23ⁿ, goizanko 8^{or} eta 10^m.
 ☽ *l. l.*, 31ⁿ, goizanko 6^{or} eta 33^m.

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.

- ☽ *a. o.*, 6ⁿ, arratseko 9^{or} eta 21^m.
 ☽ *a. l.*, 13ⁿ, arratseko 7^{or} eta 48ⁿ.
 ☽ *a. b.*, 20ⁿ, arratseko 11^{or} eta 15^m.
 ☽ *l. l.*, 29ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 28^m.



1 Asteharte.	J. Filipe et Jak. Ap.	1 Ostirale.	s. Kler.
2 Astizken.	s. Atanasio.	2 Neskanegun.	s. Poteñ.
3 Ostegun.	D ^{na} Khurutze.	3 Igante.	PHENTEKOSTE.
4 Ostirale.	s ^a Monika.	4 Astelehen.	s. Frantzes K.
5 Neskanegun.	s. Pio V.	5 Asteharte.	s. Bonifazi.
6 Igante. 3.	J. Johane Eb B L	6 Astiz. <i>IVTh.B.</i>	s. Norbert.
7 Astelehen.	s. Stanizlaz.	7 Ostegun.	s. Majan.
8 Asteharte.	<i>J. Migel. agert.</i>	8 Ostir. <i>IVTh.B.</i>	s. Medart.
9 Astizken.	s. Gregori. Na.	9 Nesk. <i>IVTh.B.</i>	s ^a Pelajia.
10 Ostegun.	s. Antoneñ.	10 Igante. 1.	TRINITATE.
11 Ostirale.	s. Oriens.	11 Astelehen.	J. BARNABE, <i>ap.</i>
12 Nesk. <i>Bar.</i>	s. Nere eta Akil.	12 Asteharte.	s. Johane Fag.
13 Igante. 4.	s. <i>Jenio.</i>	13 Astizken.	s. <i>Antoni, Pad.</i>
14 Astelehen.	<i>Johane Sala, d.</i>	14 Ostegun.	BESTABERRI.
15 Asteharte.	s. Eutrope.	15 Ostirale.	s ^a Jermena.
16 Astizken.	s. Johane Nep.	16 Neskanegun.	s. Frantzes R.
17 Ostegun.	s. Paskal.	17 Igante. 2.	s. <i>Avit.</i>
18 Ostirale.	s. Venanzio.	18 Astelehen.	s ^a Marina.
19 Neskanegun.	s ^a Pudenziena.	19 Asteharte.	s Jervasi eta Prot.
20 Igante. 5.	s. <i>Bernardein.</i>	20 Astizken.	s ^a Juhena Falk.
21 Astelehen.	Errogazioniak.	21 Ostegun.	s. Louis Gonz.
22 Asteharte.	s ^a Kiteria.	22 Ostirale.	J. BIHOTZ SAK.
23 Astizken.	s. Ubalde.	23 Neskanegun.	s. Eusebio.
24 Ostegun.	SALBATORE	24 Igante. 3.	J. JOHANE BA.
25 Ostirale.	s. Gregori VII.	25 Astelehen.	s. Eurosia.
26 Neskanegun.	s. Filipe Neri.	26 Asteharte.	s. Johane eta Paole.
27 Igante.	s ^a <i>M. Mad. P.</i>	27 Astizken.	s. Prosper.
28 Astelehen.	s. Agosti.	28 Ostegun.	s. Irene.
29 Asteharte.	s. Garzia.	29 Ostirale.	J. PETIRI P.
30 Astizken.	s. Felis.	30 Neskanegun.	J. Phaoleren orh.
31 Ostegun.	s ^a Anjela.		



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1^{ez}.


- Ⓔ a. o., 6ⁿ, goizanko 4^{or} eta 36^m.
 Ⓕ a. l., 13ⁿ, goisanko 10^{or} eta 22^m.
 Ⓖ a. b., 21ⁿ, arrastiriko or. 1 eta 8^m.
 Ⓙ l. l., 28ⁿ, arratseko 8^{or} eta 5^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- Ⓔ a. o., 4ⁿ, arrastiriko oren eta 9^m.
 Ⓕ a. l., 12ⁿ, goizanko 2^{or} eta 57^m.
 Ⓖ a. b., 10ⁿ, goizanko 1 1^{or} eta 37^m.
 Ⓙ l. l., 27ⁿ, gaiherdi eta 5 1^m.



- | | | |
|----|-------------------|--------------------------|
| 1 | Igante. 4. | <i>Jes. Odol. Pr.</i> |
| 2 | Astelehen. | A. B. BIZITAZ. |
| 3 | Asteharte. | s. Gillen. |
| 4 | Astizken. | s. Leon II. |
| 5 | Ostegun. | s. Zirile. |
| 6 | Ostirale. | s. Trankile. |
| 7 | Neskanegun. | s. Marzial. |
| 8 | Igante. 5. | <i>sa Beronika.</i> |
| 9 | Astelehen. | <i>sa Elisabet, p.</i> |
| 10 | Asteharte. | Zazpi anaie m. |
| 11 | Astizken. | s. Pio. |
| 12 | Ostegun. | J. Johane Galh. |
| 13 | Ostirale. | s. Anaklet. |
| 14 | Neskanegun. | s. Bonaventura |
| 15 | Igante. 6. | <i>s. Johane Maj.</i> |
| 16 | Astelehen. | A. D. M. KARM. |
| 17 | Asteharte. | s. Aletsis. |
| 18 | Astizken. | s. Kamille. |
| 19 | Ostegun. | s. Bizente Paolo. |
| 20 | Ostirale. | s. Filibert. |
| 21 | Neskanegun. | <i>sa Pratseda.</i> |
| 22 | Igante. 7. | <i>sa M. Maidalena</i> |
| 23 | Astelehen. | s. Apolinari. |
| 24 | Asteharte. | s. Henrik. |
| 25 | Astizken. | J. JAKOBE, <i>ap.</i> |
| 26 | Ostegun. | <i>sa Aña.</i> |
| 27 | Ostirale. | s. Galatori. |
| 28 | Neskanegun. | s. Nazari eta Zelze |
| 29 | Igante. 8. | <i>sa Marta.</i> |
| 30 | Astelehen. | s. Abdon. |
| 31 | Asteharte. | <i>s. Inazio Loyola.</i> |

- | | | |
|----|--------------------|-------------------------|
| 1 | Astizken. | J. Petri katietan. |
| 2 | Ostegun. | s. Alfonso, Lig. |
| 3 | Ostirale. | J. Eztebar. edir. |
| 4 | Neskanegun. | s. Dominiche. |
| 5 | Igante. 9. | <i>A. D. M. Elbur.</i> |
| 6 | Astelehen. | <i>J. K. Transfig.</i> |
| 7 | Asteharte. | s. Kajetan. |
| 8 | Astizken. | s. Ziriako. |
| 9 | Ostegun. | s. Jermeñ. |
| 10 | Ostirale. | <i>s. Laorenz, m.</i> |
| 11 | Neskanegun. | s. Tiburze. |
| 12 | Igante. 10. | <i>sa Klara</i> |
| 13 | Astelehen. | <i>sa Radegonda.</i> |
| 14 | Asteharte. | s. Eusebi. |
| 15 | Astizken. | A. D. M. MARIA Zel. |
| 16 | Ostegun. | s. Rok. |
| 17 | Ostirale. | <i>sa Emilia.</i> |
| 18 | Neskanegun. | <i>sa Elena.</i> |
| 19 | Igante. 11. | <i>sa Filomena.</i> |
| 20 | Astelehen. | s. Bernat. |
| 21 | Asteharte. | <i>s. Julien, Lesk.</i> |
| 22 | Astizken. | s. Ipolita. |
| 23 | Ostegun. | s. Filipe Ben. |
| 24 | Ostirale. | J. BARTOL., <i>ap.</i> |
| 25 | Neskanegun. | s. Louis, erreg. |
| 26 | Igante. 12. | <i>A. D. M. Bib. S.</i> |
| 27 | Astelehen. | s. Jusef. Kal. |
| 28 | Asteharte. | s. Agosti. |
| 29 | Astizken. | <i>J. Joh. Lephom.</i> |
| 30 | Ostegun. | <i>sa Rosa, Lima.</i> |
| 31 | Ostirale. | s. Remoun N. |



BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. eta 3/4 ez.

+++


- Ⓔ a.o., 2ⁿ, arratseko 11^{or} eta 45^m.
- Ⓕ a.l., 10ⁿ, arratseko 9^{or} eta 3^m.
- Ⓖ a.b., 18ⁿ, eguerdi eta 43^m.
- Ⓓ l.l., 25^m, goizanko 6^{or} eta 20^m.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.

+++

- Ⓔ a.o., 2ⁿ, eguerdi eta 58^m.
- Ⓕ a.l., 10ⁿ, arrastiriko, 3^{or} eta 49^m.
- Ⓖ a.b., 17ⁿ, arratseko 10^{or} eta 52^m.
- Ⓓ l.l., 24ⁿ, arrastiriko, or. 1 eta 59^m.



- | | |
|--------------------------|----------------------------------|
| 1 Neskanegun. | s. Bizente ap. m |
| 2 Igante. 13. | s. <i>Ezlebe, erreg.</i> |
| 3 Astelehen. | s. Lizier. |
| 4 Asteharte. | sa Franz. Ch. |
| 5 Astizken. | s. Laorenz J. |
| 6 Ostegun. | s. Onesifore. |
| 7 Ostirale. | s. Zebero. |
| 8 Neskanegun. | A. B. SORTZIA. |
| 9 Igante. 14. | A. B. <i>Izen S.</i> |
| 10 Astelehen. | s. Nikolas, I. |
| 11 Asteharte. | s. Hiazinte. |
| 12 Astizken. | s. Gi. |
| 13 Ostegun. | sa Eujenia. |
| 14 Ostirale. | D ^{na} <i>Khurutze.</i> |
| 15 Neskanegun. | s. Nikomede. |
| 16 Igante. 15. | A. B. DOLOR. |
| 17 Astelehen. | s. Franz. Zaor. |
| 18 Asteharte. | s. Josef Kup. |
| 19 Astiz. <i>IVTh.B.</i> | s. Janvier. |
| 20 Ostegun. | s. Eustache. |
| 21 Ostir. <i>IVTh.B.</i> | J. MATHIU, Eb. |
| 22 Nesk. <i>IVTh.B.</i> | S. Maur. |
| 23 Igante. 16. | sa <i>Tekla.</i> |
| 24 Astelehen. | A. B. Librazalia. |
| 25 Asteharte. | s. Austinde. |
| 26 Astizken. | s. Tomas Vil. |
| 27 Ostegun. | s. Kosme eta Dam. |
| 28 Ostirale. | s. Fauste. |
| 29 Neskanegun. | J. MIGEL, ark. |
| 30 Igante. 17. | s. <i>Ieronimo.</i> |

- | | |
|--------------------------|-------------------------|
| 1 Astelehen. | s. Remi. |
| 2 Asteharte. | <i>Ainguru Begir.</i> |
| 3 Astizken. | s. Exupero. |
| 4 Ostegun. | s. <i>Franzes. As.</i> |
| 5 Ostirale. | s. Venzeslaz. |
| 6 Neskanegun. | s. Bruno. |
| 7 Igante. 18. | ARRUSARIOA. |
| 8 Astelehen. | sa Birjita. |
| 9 Asteharte. | s. Denis. |
| 10 Astizken. | s. Frantzes B. |
| 11 Ostegun. | sa Sabina. |
| 12 Ostirale. | sa Domnina. |
| 13 Neskanegun. | s. Edoart. |
| 14 Igante. 19. | A. B. <i>Amatarz.</i> |
| 15 Astelehen. | s. Teresa. |
| 16 Asteharte. | s. Bertran. |
| 17 Astizken. | s. Edvijs. |
| 18 Ostegun. | J. LUK, Ebanj. |
| 19 Ostirale. | s. <i>Grat.</i> Olor. |
| 20 Neskanegun. | s. Johane K. |
| 21 Igante. 20. | A. B. <i>Garbitarz</i> |
| 22 Astelehen. | s. Petiri, Alk. |
| 23 Asteharte. | s. Leotade. |
| 24 Astizken. | s. <i>Rafael</i> , ark. |
| 25 Ostegun. | s. Krespeñ. |
| 26 Ostirale. | ARREROSLIA. |
| 27 Neskanegun. | s. Fronton. |
| 28 Igante. 21. | A. B. <i>Patron.</i> |
| 29 Astelehen. | sa Eusebia. |
| 30 Asteharte. | s. Kazieñ. |
| 31 Astizken. <i>Bar.</i> | s. Zirizio. |



AZAROA edo GOROTZILA

Egunak llaburtzen dira orenez.




- ⊕ a. o., 1ⁿ, goizanko or. 1 eta 5 3^m.
 ☾ a. l., 9ⁿ, goizanko 9^{or} eta 5 4^m.
 ● a. b., 16ⁿ, goizanko 8^{or} eta 4 5^m.
 ☽ l. l., 23ⁿ, gaiherdi eta 49^{min}.
 ⊕ a. o., 30ⁿ, arratseko 11^{or} eta 16^m.

ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}

- ☾ a. l., 9ⁿ, goizanko or. 1 eta 5 4^m.
 ● a. b., 15ⁿ, arratseko 7^{or} eta 3ⁿ.
 ☽ l. l., 22ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 1 3^m.
 ⊕ a. o., 30ⁿ, arratseko 6^{or} eta 5 3^m.



- 1 Ostegun.
 2 Ostirale.
 3 Neskanegun.
 4 **Igante.** 22
 5 Astelehen.
 6 Asteharte.
 7 Astizken.
 8 Ostegun.
 9 Ostirale.
 10 Neskanegun.
 11 **Igante.** 23
 12 Astelehen.
 13 Asteharte.
 14 Astizken.
 15 Ostegun.
 16 Ostirale.
 17 Neskanegun.
 18 **Igante.** 24
 19 Astelehen.
 20 Asteharte.
 21 Astizken.
 22 Ostegun.
 23 Ostirale.
 24 Neskanegun.
 25 **Igante.** 25
 26 Astelehen.
 27 Asteharte.
 28 Astizken.
 29 Ostegun.
 30 Ostirale.

DONISANTORE.

Purg. arimak.

s. Zebero.

Errelikia s^k.

s. Zakaria.

s. Leonart.

s. Florent.

s. Martirak.

s. Teodoro.

s. Andreu Av.

ELIZEN SAKR.

J. MARTINE.

s. Stanizlaz K.

s. Josafat.

s^a Jertruda.

s. Edmon.

s. Gregori T.

s. Odon.

s^a Elisabet Hgr.

s. Félis, Valesi.

*A. B. Eskentzia*s^a Zezila.

s. Klement.

s. Johane Kh.

s^a Katalina.

s. Petiri, Al.

s. Virjile.

s. Maurino.

s. Saturnino.

J. ANDREU, Ap.

- 1 Neskanegun.
 2 **Igante.**
 3 Astelehen.
 4 Asteharte.
 5 Astizken.
 6 Ostegun.
 7 Ostirale.
 8 Neskanegun.
 9 **Igante.**
 10 Astelehen.
 11 Asteharte.
 12 Astizken.
 13 Ostegun.
 14 Ostirale.
 15 Neskanegun.
 16 **Igante.**
 17 Astelehen.
 18 Asteharte.
 19 Astiz. *IVTh. B.*
 20 Ostegun.
 21 Ostir. *IVTh. B.*
 22 Nesk. *IVTh. B.*
 23 **Igante.**
 24 Astel. *Bar.*
 25 Asteharte.
 26 Astizken.
 27 Ostegun.
 28 Ostirale.
 29 Neskanegun.
 30 **Igante.**
 31 Astelehen.

s. Eloi.

ABENTUKO 1^a*s. Frantzés Xab.*s^a Barbara.

s. Sabas.

s. Nikolas.

s. Ambrosi.

A. B. KONZEP.

*Abentuko 2^a.*s^a Fulalia.

s. Daniel.

s. Melkiade

s^a Luzia.

s. Arzene.

s. Mismeñ.

Abentuko 3^a.

s. Lazaro.

s. Gazieñ.

s. Urbeñ.

s^a Julia.

J. TOMAS, Ap.

s. Flavieñ.

*Abentuko 4^a*s^a Delphina.

EGUBERRI.

J. EZTEBE, m.

J. JOHANE, Eb.

Haour Inox.

s. Tomas, Kant.


s. Manzuet.

s. Silbestre.



OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martcho	20 ^{an.}
UDA hasten da arramaiatze	21 ^{an.}
LARRAZKENA hasten da buruila	23 ^{an.}
NEGIA hasten da abentu	22 ^{an.}




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6^{n.} — ATHAR-
RATZEN : **m.**, astelehenez, amousetik ; **f.**, Phentekoste bihara-
menian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE
GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste
ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**,
Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26^{n.} — GARRUZEN :
m., ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1^{n.} *eta* azaroko lehen astizkenian.
— IRISARIN : **m.**, neskaueg., amoust., **f.**, baranthail. 3^{n.} *eta*
aphiril. 15^{n.} — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondo-
ko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN :
m., astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizk^{n.}, *eta* abentu 8^{n.} —
ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen
asteh^{n.} — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1^{n.} ;
eta buruila 8^{n.}, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg.,
f., Gorozum. lehen asteleh^{n.}, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. —
SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizk^{n.} *eta* urrie-
tako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





Edirengia



I. Bankarrotari buruz	73
II. Frantzian eta Beljikan	76
III. Uskara bazterretan	77
IV. Sei chankhatako legebat	79
V. Laborantchaz :	
1. Uztak 1905 ^{an}	84
2. Laborarien arteko asurantzak	86
3. Arthouaren jorratzia	89
VI. Istoria eta erasi	93

